



ELKARRIZKETA GRABAKETA TEKNIKAK, MOZTU ETA ITSATSI

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Ariketa honek elkarrizketatzeko moduak azaltzen ditu, marko eta gailu ezberdinen arabera.

AIM OF THE ACTIVITY

Elkarrizketa mota ezberdinak nola burutu ikastea. Grabaketa, mozketa eta edizioaren oinarriak ikastea.

EXPECTED OUTCOMES

Jarduera amaitzerako, partehartzaileak gai izango dira kazetaritza galderak egiteko, elkarrizketa motak bereizteko, grabagailuak erabiltzeko, elkarrizketa bateko elementuak ulertzeko (sarrera, mikrofonoa, galderak, ingurunea, bukaera), elkarrizketak egiteko eta mozketa eta edizioaren oinarriak erabiltzeko.

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Elkarrizketak egiten trebatua izatea. Horrela izan ezean, esperientziadun aurkezleak gonbida litezke partaideei hitz egin diezaieten euren jardunaz.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Estudioa edo estudio eramangarria.

LENGTH

Ordutegia irratiko estudioaren zerbitzu eta baliabideen arabera antolatu beharko da.

MATERIALS

5 grabagailu (Flash-Card elementuak, Wave- edo DAT-grabagailuak, Flash-mikroak). Ahal bezain erabilerrazak izan behar dira. Aparailu profesionalak XLR-Input-dunak gomendagarriak dira (Olympics, TASCAM, Sony edo Marantz arruntak) Gutxienez bi telefono hibrido. Bestela, bozgorailudun telefono bat eta grabagailu bat ere erabil daiteke. Arbela. Behar adina disko edo kasete (MDak). Bateriak.

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Sarrera. Elkarrizketa baten hitzartze eta prestaketa bat izango da (ikus. eranskinetako material gehigarria). Galderak. Sarrera bat egingo da galdera irekien eta itxien eta horien funtzioaren inguruan. Partaide bakoitzari hitz bakarreko gai bat luzatuko zaio (esaterako alkohola, marrazoa...) horrekin zenbait galdera ireki edo itxi presta ditzan. Horren ostean, pertsona elkarrizketatu zehatz batentzako gai esanguratsu guztiak hautatuko dira. Galdera irekiak eratorriko dira ikerketa materialetik abiatuz, eta ordena egokian ezarri horiek burutu nahi den elkarrizketarako (elkarrizketa mota ezberdinen arabera). Elkarrizketa motak. Elkarrizketa moten aurkezpena. Grabagailuak. Partehartzaileak taldeka banatuko dira (daukagun grabagailu kopuruaren arabera), lan egin dezaten gailu ezberdinekin aldi berean (Flash-Card elementuak, Wave- edo DAT-grabagailuak, Flash-mikroak edo Smartphoneak). Mikrofono mota ezberdinak azaldu horiek grabatuz, hala nola ingurune soinuak, ahotsak eta abar. Lanaren atalak: Aparatuei eta hauen erabilerari buruzko azalpena eman. Antolatu partaideak binaka elkar elkarrizketatu dezaten, eta berbetaldi horiek grabatu gailu eramangarriak erabiliz. Ondoren, grabatu dutena ikuskatuko dute. Oharra: gutxienez grabagailu bana izan beharko du erabilgarri bikote bakoitzak, eta taldeen banaketak hori ahalbidetu beharko du guztiak ohitu daitezen grabagailu mota berrienetara. Oinarritzko elkarrizketa: binaka egongo dira. Batak bestea elkarrizketatuko du. Elkarrizketa bakoitzak 5-10 minutu iraun beharko ditu. Partehartzaile bakoitzak 30 minutu izango ditu prestatu eta grabatzeko. Ariketaren helburua elkarrizketa labur eta simple bat gauzatzea da, eta garrantzitsuago dena, grabagailu batekin lan egitea. Elkarri beraien afizioen, gustuko dituzten musika estiloen, jaioterriaren eta abarren inguruan galde diezaioke. Ostean elkarrizketa adituko dute. Ondoren, elkarrizketen galderez eta egiturez jardungo dute feedbacka egiteko, txandaka. Telefono bidezko elkarrizketa. Partaideei azalduko zaizkie telefonoz elkarrizketa bat egitearen eta grabatzearen aferak (esaterako, nola lortu soinu maila berberak elkarrizketatzailearentzat eta elkarriketatuarentzat). Ondoren, eskura daukagun material teknikoaren nondik norakoak azalduko dira. Zenbait adibide erreproduzituko dira ostean, eta horiek komentatu. Partaideei aurreko egunean esango zaie biharamunerako telefonozko elkarrizketarako hitzordu bat ezarrita ekar dezatela. Gehien jota 10 minutukoa izango da (trinkoa eta argi egituratua). Talde txikiak lehenetsiko dira jarduera honetarako; izan ere, banaka egingo dituzte, besteek aditu eta ekarpenak egiteaz bat. Hona ekarpenetarako jarraibideak: giroa, egitura, galderak, azken emaitza orokorrean eta horren kalitate teknikoa. Iritzi orokorra (Vox Pop). Inkesta gisara ñabardura eta detaileei buruzko iritzi orokorra jasoko da, behar tekniko ere erreparatuz. Binaka, ordubete izango dute inkesta prestatu eta burutzeko. Talde handira itzuli aurretik, beraien lana berrikusiko dute, suertatu zaizkien arazoei buruz eztabaidatuz. Berriz ere feedback erronda bat egingo da talde handian. Estudioko elkarrizketa. Partaideek denbora eta espazio mugekin elkarrizketa bat nola prestatu ikasiko dute. Nabarmendu egingo da elkarrizketatuari buruz informazio zabala (ikerketa bidez) alde aurretik biltzearen garrantzia. Elkarrizketa hasi baino lehen, hizketaldi labur bat izango dute elkarrizketatuarekin, azaltzeko nola izango den, estudioa erakusteko eta giro jator bat sortzeko alde aurretik. Elkarrizketa praktikoak 15 minutu hartuko ditu gehien jota. Beste feedback erronda batez emango zaio jarraipena ariketari. Hona feedbackerako irizpideak: giroa, egitura, galderak, azken emaitza orokorrean eta horren kalitate teknikoa. Ebaki eta editatu. Formatzaileak edizio prozesuan behar diren hardware eta softwareei buruzko xehetasunak azalduko ditu. Partaideek beraiek grabatu duten materialarekin egin dute lan.

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

4 hezitzaileko ikusmen urritasuna edo ikasteko zailtasunak dauzkaten partaideekin. Inkestak egiteko beharrezkoa suerta liteke aparteko laguntza behar izatea. Estudioko trebaketa banak egin beharko dira ikusmen urritasuna daukatenekin.

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

Ez baldin badaude nahikoa baliabide estuioiko eta telefonozko elkarrizketak egiteko, taldeek aldi berean lan egin dezaketeteke (estudioa, inkesta, elkarrizketa eta abar). Horrela eginez gero, hezitzaile gehiago beharko dira (gutxienez bi).

VARIATIONS

TIPS FOR TRAINERS

PARTICIPANTS

Komeni da partehartzaile guztiek jarduera bakoitza behin baino gehiagotan egitea.

ANALYSIS AND EVALUATION

Tailerra gauzaten ari den bitartean egingo dira feedbackak eta ebaluaketa.

SCHEDULING